

“El temor al latín”. Urrengorako gelditu ziren lanen arteko: J. Garate-ren “Carta de “Citra-tumba” a D. Bonifacio de Echegaray”.

Haritschelhar jaunak aditzera ematen du, EUSKERA bi zenbakitaratuz egin behar dela, bigarrenean agiriak eta erabakiak agertzeko.

g) HERRI ETA HERRITARREN BATZORDEKO LANEN BERRI:

Batzordeko idazkariak egiten dituen lanen berri eman du. Prestaturik daude fitxak eta herri izenen zerrendak, lankideei bidaltzeko. Lehen maila, Instituto de Estadística-k “entidades de población”-tzat ofizialki hartzen dituenak izango dira, behar diren azterketak eta zuzenketak egiteko.

Haritschelhar jaunak, prefetak eskaturik, egina dutela mugazandiko Euskal Herriko euskarazko izen guziena, aditzera ematen du.

h) EUSKALTZAINDIA FINANZIATZE ASMOEZ:

Santamaria jaunak ezin etorria adierazi du eta urrengo biltzarrerako gelditzen da gai hau.

i) BERTSOLARI TXAPELKETAZ:

Zabala jaunak aditzera eman du gai honi buruz zenbait bilera eginak dituztela, eta urrengo bilerarako txosten bat gertatua ekarriko duela.

j) MARTXOKO BILERAZ:

Datorren hileko batzarrari buruz, azken ostirala, Ostiral Santua denez, asteartera pasatzea erabaki da. Beraz, martxoko biltzarra, Donostian bertan, hilaren 28an izango da, astearte arratsaldez.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1972 - III - 28

Donostian Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko martxoaren 28an, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi, Zabala euskaltzain jaunak; Altuna, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Sarasola eta Zata-rain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Lafitte, Larzabal eta Santamaria jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko agiria onhartu da.

a) HAR-EMANAK:

Euskaltzainburu jaunak, aditzera ematen du Diharce (Iratzeder) eus-tzain jauna Belokeko abade izendatua izan dela, eta hil honen 21ean izan zela bere kargu hartzea eta bera eta beste zenbait joan zirela Be-lokera Euskaltzaindiaren izenean. Diharce jaunari zorionak bere kargu berrian.

Espasa-Calpe, S. A., argitaldariaren gutuna, Azkue zenaren *Euska-lerriaren Yakintza*-ren igazko azken sei hilabeteetako salketen egile es-kubideen dirua ordainduaz, 3.067,20 pezeta guttiz.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Manuel Lekuona jaunak erregalaturik: A. Griera-ren *Vocabulario vasco* (Ensayo de una interpretación de la lengua vasca), 2 tomo. Ernesto La Orden, Ministerio de Información y Turismo-ko sekretario jaunak emana, *Santiago en España, Europa y América*. "Jakín sorta" k emana, *Erlíjioa hauzipean*, J. Arregi, E. Osa, J. Azurmendi, Larresoro, J. M. To-rrealdai eta P. Xarriton jaunen saiakera bilduma. "Etor" argitaldariak X. Mendigurenen *Europako ezker berria*.

Bestalde, R. Lafón jaunak "Bulletin de la Société de Linguistique de Paris" en egin dituen euskal liburu erreseñen separatak, eta J. M. Sa-trustegi jaunak bere *Tecnología del ensamblaje madera-piedra en ins-trumentos primitivos* lanaren separata.

b) BERTSOLARI TXAPELKETARI BURUZ:

A. Zabala jaunaren txostena. Berak eta Juan Maria Lekuonak ber-tsolariekin izan dituzten bi bileren berri ematen du. Orain arteko txape-lketen azterketa bat egin dute, eta aurrerakoak zelan jokatu estudia-tu. Lehendik goi-mailetan daudenak hor utziko dira eta bigarren maila-koekin barruti-txapelketak antolatu, eliminatoriaz. Aurrera pasatzen dire-nen artean egingo da, lehen mailakoena, baina txapeldun bakar bat hautatzeko, eta ez bigarrenik, hirugarrenik eta abar. Honetarako, lehen mailakoekin puntuazioz egingo da, epai-mahaikoak sekretuan beren pun-tuak emanez. Barruti-txapelketetan zelako sariak emango diren, Donos-tiako Centro de Atracción y Turismo-rekin zer har-eman, gaiak nola eratu eta abar, xehetasunez eman ditu Zabala jaunak bere txostenean.

d) SANTAMARIA JAUNAREN TXOSTENA, FINANZIATZE ASMOEZ,
eguneko gaitan jarrita egoana, urrengo bilerarako uzten da, jaun honen etorri ezinagatik.e) DENDEN IZENDEGIAZ, *Kintana jaunaren txostena*:

Zenbait exenplu agertu ditu, bere asmoa funtsean zertan den adie-raziaz. Oinarrizko hiztegi bat uzten du, hiztegi batzordekoek aztertze-ko

eta bukatu eta onhartu ondorean zabalkundea egiteko. Batzordeak, maiztzeke bilerarako aztertuta presentatuko du.

f) HERRI eta HERRITAREN izenen batzordearen txostena:

Goizean izan du batzordeak bere bilera, eta Lizundia jaunak irakurri du batzordearen txostena. Lankideen artean fitxak eta Instituto de Estadística-ren herri eta hauzo izenen lista bana zabaldu da. Lana, lankideekin, probintzia bakoitzean aurrera eramateko arduradunak: Arabatik, M. Ruiz Urrestarazu; Bizkaitik, J. L. Lizundia; Gipuzkoatik, S. Garmendia; eta Nafarroatik, J. M. Satrustegi.

g) IRAKASLE TITULUERI BURUZ, batzordekoen txostena:

Euskararen irakasletarako, hartu diren *Curriculum vitae* guziak aztertuko dira hilabeteren buruan. Mitxelena jaunak, bere aldetik, esamifetarako oinharritzko izango den bibliografia bat osatuko du.

Bestalde, "Euskal kultura" agiriarentzat aurtengo urrian egingo dira esamiñak.

h) "DOMINGO AGIRRE" NOBELA SARIKETAREN BALDINTZAK:

Euskaltzainburuak, igazko *Literaturari buruzko saiakera* sariketan gertatuaren berri eman du. Araudian, lanak argitaratuak ala argitaratu gabeak izan behar ziren ongi argitu gabe egoala eta istilua sortu zela. Araudia, puntu horretan, beti horrela erabilia zela, baina lehen aldiz gertatu zala, lanetariko bat argitaratua izatea, epai-mahaikoak erabagia eman baino lehen. Prolema sortu bezain azkar, lege gizon batekin hitz egin zuela eta honek epai-mahaikoak berek erabagi beharrezkoa zela, aditzera eman omen zion. Hontaz, Euskaltzaindiko zuzendaritzakoak (burugoa) eta epai-mahaikoak bilera berezi bat egin zuten, Bizkaiko Aurrezki Kutxari gertatuaren berri eman ondorean eta honek Euskaltzaindiaren esku utzi zuenean, eta epailaritzat jarritakoen esku utzi zen arazoa. Eta epai-mahaia eman zuen gero bere epaia. Eta aurrerantzean holakorik gerta ez dadin, araudia berri dala puntu hori ondo lotzeko eran.

Idazkariak irakurri du araudi berria. Eta adierazi du, lehen puntuan, Arantzazuko erabagiaren araberan jartzea, gailegoak Real Academia Gallega-ren araberan eskatzen duten baldintza kontuan harturik egin dala, eta ortografia partean bokalarteko H bakarrik eskatzen dala Arantzazuko agirian. Araudi berria onhartzeko da.

Haritschelhar jaunak, igazko sariketaren epai-mahaiko zenez, bi hitz egin ditu beren erabakia zelan eta zergaitik eman zuten adieraziaz, araudirik hautsi gabe. Eta, gainera, berak bere erabagia eman zuenean, ez ekiela lan saritua argitaratua zenik.

i) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Arrue jaunak dio, Californiatik hartu berri duen gutun batean esaten diotela, Idaho-ko Boise-n radioz euskarazko saioa ematen dutela.

Euskaraz mintzatzen dena bizkaieraz ihardutzen dala, eta bera nafarra denez gero, ulerkaitz egiten zaiola.

Haritschelhar jaunak aditzera ematen du, Lafitte jauna gaixorik dala, eta honegatik izan dala bere etorri ezina.

Idazkariak dio, *Zigor* euskal izenez hauzia izan dala Eibarko juzganduan, eta berak Euskaltzaindiko agiri bat bialduarren, esanez izen hori Lope García de Salazar-en *Las Bienandanzas e Fortunas*-en eta J. C. de Guerra-ren *Oñacinos y Gamboino, rol de banderizos vascos*-en jasotzen dala, ez dutela ontzat eman, esanez, Euskaltzaindian hontaz guztiak ez datozela bat. Baina, Euskaltzaindian, kargudunen eginkizunekoak dala agiriak ematea. Gainera, 1970ko ebnduko bileran ikusi zela izen honi buruzkoa,

Ikastola hiztegiari buruzko oharra jaso dira, eta batzordearen eskuetara pasatu.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1972 - IV 4

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko apirilaren 4an, goizeko hamar t'erdietan, batzar berezian bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruozeko, Arrue, Diharce, Irigoyen, Lojendio, Mitxelena, eta Sarrutrustegi, San Martin idazkari dela. Araudi berrieztatzeko batzordeko den aldetik, Lizundia laguntzailea ere bertan da.

Ezin etorria adieraziaz, beren poderioak emanaz idatzi dute: Eppherre, Lafon, Dassance, Lafitte jaunak Haritschelhar jaunari; Larzabal jaunak Villasante jaunari eta Erkiaga jaunak Irigoyen jaunari.

GAIA: ARAUTEGIA BIRRESTEKOA.

Artikularik artikulu, puntuz puntu, irakurri da arautegi berria, azken azterketak egin ondorekoa, 1971ko Abenduaren 30eko eta 1972ko Urtarrilaren 31ko batzar berezietan eta zenbait puntutan, mamia aldatu gabe, idazkera orraztu eta finkatu ondoren, beste gabe, bototara jo da. 15 botoak baiezkoak izan dira, eta beste gabe ARAUTEGI BERRIA onhartua eta birrestia gelditzen da.

OHARRAK:

1. Biharamunean, idazkariak bere etxean jaso zuen Manuel Lekuonaren gutuna, eta Arautegi berriari buruz hau zion: "Villasante adiskideak egin dituan txostenak, gauza oni buruz —ots, Araudiari buruz, alegia— "buruz" egiñak arkitzen ditut; eta *Reglamento Interior* egoki bat egin ezker, uste det ontzat ematekoa dala Araudia dagon bezala".